

Helburua:

\*Ikasleek euren ordutegia antolatzearen garrantziaz jabetzea.

\*Ikasle izateagatik ez dituztela beste jarduerak baztertu behar baina dena ongi joan dadin antolakuntza behar dutela konturatzea.

Saioaren garapena:

\*Azaldu oso garrantzitsua dela bakoitzak bere orduak antolatzea egin behar dituen gauza guztiak egin ahal izateko. (imaginatu beste edozein lanbidetan ez balukete antolatuko, adibidez medikuntzan, zenbata arazo sortuko liratekeen... Ikasle izatea momentu honetan beraien lanbidea da....).

\*Denon artean (batek altuan, tutoreak...) irakurri "antolaketaaren garrantzia" dokumentua eta komentatu denon artean horren inguruan iritzia, ados dauden, egiten duten, baliagarri zaien...

\*Ondoren "joan den astean..." dokumentua ikasle bakoitzak bete eta hausnartu dezala.

\*Jarraian "lan pertsonala antolatzeko orientabideak" irakurri eta ikasle bakoitzak pentsa dezala irakasgai bakoitzak zer lan suposatzen dion berari. Hori guztia kontuan hartuta bere arratsaldea antola dezala aste erral baterako (adibidez hurrengo astea). Hau astero egin beharreko lan bat da, aste guztietan ez bai da lan karga berdina edukitzen eta azterketak ere aldatzen dira. Hau bakoitzak berea etxean egingo du (egin behar luke), guk lehengoa egiteko aukera eskaintzen diegu eta hortik aurrera bakoitzak ikusiko du.

\*Amaitzeko, nahiz eta orain arte ere azterketa asko egindiztuzten eta beti izan diren garrantzitsuak, hemendik aurrera beren etorkizunean eragin gehiago izan ditzakete beraz horietan arreta jartzea garrantzitsua iruditzen zait. Horregatik, "Azterketak eta errepasoak" multzoa proposatzen dizuet. Lehendabizi "honela prestatzen ditut nire azterketak" irakurri denon artean eta talde txikitan edo haundian (zuen esku) hausnartu. Ondoren bakoitzak bere "galdetegia" bete dezala eta bukaeran agertzen diren 2 galderen inguruan eztabaidatu gelan. Bukaera moduan esan azterketa simulakro egingo duzuela baina ez dela zuen irakasgaia baizik eta eguneroko gauzen (guztiok dakizkitenak) inguruan eta banatu "5 minutuko testa" eta ezer gehiago esan gabe, has daitezela. Tarteka zuek pres sar dezakezue zenbat denbora pasa den komentatuz... Kontua da dena irakurri behar dutela eta amaieran jartzen duela lehen bi ariketak bakarrik egiteko, tranpa moduko bat da. Hor ikus dezatela lehendabizi azterketa osoa irakurri behar dela, alferrikako ezer ez egiteko.

## ANTOLAKETAREN GARRANTZIA

Zure lanean errendimendu ona lortu nahi baduzu, eguna amaitzean zenbait gauzetarako (ikasteko normalean) denbora falta izan duzula somatu nahi ez baduzu, edo askotan ikasten hasteko momentua aurkitzen ez baduzu ..... **antolakuntza beharrean zaude.**

Antolakuntzarekin gauza guztietarako denbora izaten da

Ikasle izateagatik ez duzu egun osoan liburuak eskutan ibili behar, baina ikasketekin zerbait lortu nahi baduzu ezin duzu ikastea beste gauzarik ez dagoenerako utzi. Zeure buruari lan ordutegia ezartzen ez badiozu asko kostako zaizu ikasteko denbora aurkitzea, beti izanen baita eragozten dizun zerbait.

Konbentzitu zaitez! *Azken momentuan izugarri ikasten aritzea inoiz ez da irtenbidea izaten*, honako arrazoi hauengatik:

- Beti gelditzen dira gauza ilunak, ulertu ez direnak eta jadanik argitu ezin ditugunak.
- Egoera honetan ikasitakoa erraz ahazten da. Gainera buruz, memoriak ikasi behar izaten dugu eta memoriak huts egin ohi du.
- Oso zaila eta neketsua izaten da dena azken unean ikastea.
- Denbora falta dela eta, ulertzen ez denak antsietatea eta urduritasuna eragiten ditu; horren ondorioz, kontrolei eta azterketei gorrotoa hartzen zaie, eta azkenean, lan egin denarekin alderatuta errendimendua urria izaten da.
- Bestalde, ohikoa izaten da dena ikasteko adina denbora ez edukitzea, eta horregatik azterketan atera daitekeena soilik (edo aterako dela iruditzen zaiguna) ikasten da. Beraz, garrantzia azterketa gainditzeari ematen zaio, eta ez ikasketa edo ikaskuntzari, eta horrek, bukaeran, ondorio txarrak ekartzen ditu.
- .....(Kontu honi buruzko aspektu negatibo gehiago aurkituko dituzu ziur aski).

### **Antola dezagun gure denbora.**

Egunero lan egin behar duzula garbi baldin baduzu, zure jarduera guztiak egin ahal izateko denbora ongi antolatu beharko duzu.

Egunak 24 ordu ditu, ez besterik, eta denbora horretan honakoak egin behar dituzu:

- Bizitza jarduerak: jatea, lo egitea, atsedean hartzea.
- Aisialdi jarduerak: paseoan ibiltzea, musika entzutea, lagunekin ateratzea.
- Eskola jarduerak: klasera joatea, eskolako lanak egitea, ikastea.

Jarduera hauek guztiak beharrezkoak dira eta guztiak egin behar dituzu, beraz bakoitzari denbora eskaini beharko zaio, modu ordenatuan.

Lan plangintza orok honako ezaugarriak izan behar ditu:

- **Pertsonala izatea.** Norbera den bezalakoa da, bere ezaugarri eta bizi baldintzekin, eta gauza bakoitzerako denbora bat behar du, lagunak behar duenarekin agian bat ez datorrena.
- **Errealista izatea.** Ez itxoin errudun sentitu arte eta esan: "Bihartik aurrera egunero 8 orduz ikasiko dut!". Ederki baitakizu ez zenukeela beteko. Izan zaitez errealista eta, zure eskarmentuaren arabera, kalkula ezazu dena eguneratua eramateko behar duzun denbora.
- **Malgua izatea.** Futbola oso gustukoa baduzu eta gaur zure taldeak jokatzen badu nola ez duzu ikusiko?.

## JOAN DEN ASTEAN...

1. Pentsa ezazu zer egin zenuen joan den astean.  
Zehaztu ondoko taula honetan zenbat denbora eskaini zenion gutxi gora behera jarduera bakoitzari.

JARDUERAK	A	A	A	O	O	L	I	Guztira
1. Institutuko orduak								
2. Etxean ikasi:								
Euskara								
Gaztelera								
Gizarte Zientziak								
Natur Zientziak: • Biologia eta Geologia • Fisika eta Kimika								
Ingelera								
Matematika								
Plastika								
Musika								
Erljioa / HJA								
Gorputz hezkuntza								
Teknologia								
3. Beste jarduera batzuk:								
Kirolak								
Dibertimentuak								
Bestelakoak								
4. Atsedena. Loa.								

2. Baloratu zure denboraren erabilpena
- Zure ustez, nahikoa izan al zen honako gauza hauei eskainitako denbora?
    - etxean ikasteari emandakoa
    - kirol jarduerak eta zaletasunak
    - atsedena eta loa


b. Zer aldatu beharko zenukeela iruditzen zaizu zure denboraren banaketa horretan?

## LAN PERTSONALA ANTOLATZEKO ORIENTABIDEAK

Denbora eta jardueren programazioa astero edo hilabetero egin behar da; baina beharrezkoa da lan saio bakoitza ere era egokian antolatzea, batez ere birpasatzeko egunak edo ikasteko denbora luzeak direnean.

Ez da posible denbora luzean ikasten aritzea intentsitate berdineko errendimenduarekin. Funtsezkoa da ahalegina banatzea hainbat irizpideren arabera: irakasgaien zailtasuna, egin behar diren ariketa mota, ariketek sorrarazten duten nekea, eta atsedena hartu eta jarduerak aldatzeko beharra. Egoki eginiko aldaketak eta hartutako atsedenek ahaleginaren eraginkortasuna biderkatzen dute.

Aztertu denbora banatzeko ondoko eredu teoriko hau.



### Grafikoaren azalpena

1. Hasi lana gustukoa duzun edo zailtasun handirik ez duen irakasgaiaren batekin.
2. Atsedena laburra.
3. Zuretzat zailena edo gogorrena den irakasgai edo lanarekin segi.
4. Atsedena luzexegoa.
5. Saio honetarako aurreikusita dituzun ariketa errazenekin bukatu.
6. Saioaren amaiera.

Orain bakoitzak hausnarketa txiki bat egin behar duzue zuen ikasketa antolaketaren inguruan. Hau ezin da taldeka egin, bakoitzak gaitasun eta gusto ezberdinak dituzuelako eta antolaketak eragina izan dezan bakoitzak berea egin behar duelako. Aztertu irakasgai bakoitzak zuretzat duen zailtasun maila eta ematen diozun garrantzia (gerora burutuko dituzuen ikasketetarako batzuk besteak baino baliagarriagoak irudituko zaizkizue).

Irakasgaia	Zailtasun maila 1-5	Garrantzi maila 1-5	Zenbat denbora eskaini beharko nioke astean?
Matematika			
Gaztelera			
Euskera			
Gizarte			
Natur zientziak			
Teknologia			
Ingelera			
Heziketa Fisikoa			
Musika			
Aukerazkoa			
Aukerazkoa			
Erljioa/Beste ikasketak			

Hau kontuan izanda eta aurrez bakoitzak zuen arratsaldean antolaketa burutu zenutenez, egun bakoitzen zer ikasi/egingo duzuen pentsatu eta antolatu behar duzue (ikastetxean egun bakoitzean dituzuen irakasgaien arabera noski).Aste erreal baten antolaketa (adibidez hurrengo astea, lanak eta azterketak kontuan hartuz).

Gogoratu irakasgai bakoitzeko ariketa eta lanez gain egunero denbora pixka bat ikasteko erabiltzea komenigarria dela. Ikaste hori irakurri, azpimarratu, eskema/laburpen bat egin, klaseko ariketak errepasatu, klasean ongi ulertu ez duzuna berriro aztertu... izan daiteke.

Aurrez komentatu bezala plangintza horrek baditu 3 ezaugarri garrantzitsu:

- Pertsonala izatea.
- Errealista izatea, dena egiteko denbora izango duzula ziurtu.
- Malgua izatea, egunen batean ezin baduzu burutu pentsatutakoa (norabait joan behar duzulako edo zure gustuko ekintza bat dagoelako inguruan...), hurrengo egunetan errekupeatzeko denbora beharko duzula kontuan hartu.

**Bete ezazu ondorengo egutegia hurrengo asteko arratsaldeetarako!!**

**ASTEBETEKO ORDUTEGIA. Arratsaldeak ikasten.**

ORDUA	ASTELEHEN	ASTEARTE	ASTEZKEN	OSTEGUN	OSTIRAL	ASTE BURU

Konpromisoa zeure buruarekiko da; zeu zara interesatuena zeure denbora ez galtzeko. Zeure buruarekin zintzoa izaten saia zaitez. Ordutegia betetzea oso erabilgarria izango zaizu gauza guztiak egin ahal izateko.

Honekin batera komenigarria da hilabeteko egutegia edukitzea zuen etxean, gelan edo bestela egunero ikusiko duzuen tokian. Planifikaziorako lagungarri izango bai zaizue. Urriko egutegia hemen daukazue, gero hilabetero norberak egin dezakezue.

**URRIKO AZTERKETAK, LANAK ETA  
JARDUERAK.**

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	Azaroa	Azaroa



## *AZTERKETAK ETA ERREPASOAK (AZTERKETARAKO TEKNIKAK)*

### **\*Arrazoiketa**

Azterketa, kontrola edo edozein idatzizko proba prestatzeak eta burutzeak hainbat teknika eta jarrera eskatzen dizkiote ikasleari, emaitza ona lortzeko praktikan jarri beharko dituenak. Izan ere, teknika faltarengatik ikaslerik hoberenak ere akatsak egin ditzake, beren kalifikazioan eragin negatiboa izan dezaketenak: denbora gaizki kalkulatzeko, galdetzen denari ez erantzutea eta garrantzirik gabeko kontuetan galtzea, azkarregi ibiltzea, gehiegi konfiatzea, aurkezpen desordenatua, idazkera irakurgaitza... Teknika gabeziaz gain, azterketa baten aurretik izaten den egoera emozionalak ere baldintza dezake.

Honengatik guztiarengatik, ikasle guztiek, azterketak, ez azken orduan baizik eta ikasturte hasieratik prestatu behar direla jakiteaz gain, lan plangintzari, materialaren antolaketari, aurkezpenari, errepasoei eta emozioen kontrolari dagozkien hainbat neurri hartzen ere jakin beharko dute. Azken finean, lan intelektualarako teknika onak dituen eta emozionalki bere burua kontrolatzen dakien ikasleak edozein ebaluaketa motatan arrakasta izateko aukera gehiago izanen du.

Errepasoek ere bereziki aintzakotzat hartu behar dira. Maiz egiten diren errepasoek ikasleen ulermena eta ikaskuntza erraztuko dituzte, eta era berean, ikasitako edukiak erraz ahaztea eragotziko dute. Horregatik, beharrezkoa izanen da ikasle bakoitzak edukiak birpatsatzeko modu eta une egokiena zein den jakitea, zer eduki, noiz eta nola egin behar duen...

### **\*Helburuak**

- Azterketa bat prestatzerakoan edo ikasitakoa birpatsatzeko momentuan ikasleak praktikan jarri behar dituen teknika edo prozedura egokiak ezagutu.
- Azterketa aurretik eta ondoren lasaitzen laguntzen duten erlaxazio eta kontrol teknikak erabili.
- Norberaren akatsei buruz gogoeta egin eta haietatik ikasi, hurrengoetan zuzendu ahal izateko.

### **\*Saioa burutzeko jarraibideak**

1. "Honela prestatzen ditut nire azterketak" izeneko dokumentua irakurri denon artean edo bakoitzak bere isilean...(zuen esku metodologia).
2. 5-6 ikasleko talde txikitan dokumentuaren edukia eztabaidatu, azterketak prestatzerakoan topatzen dituzten zailtasunak, norberarenak nahiz taldearenak, garbi azalduz.
3. Azkenik, denbora emanen zaie gogoeta pertsonala egiteko eta galdetegia erantzuteko.

## *“HONELA PRESTATZEN DITUT NIRE AZTERKETAK” -*

Azterketa bat prestatzea ez da lan erraza, eta horregatik eskatzen du hainbat teknika ezagutu eta praktikan jartzen jakitea.

### 1. ASPEKTU OROKORRAK

Azterketa bat prestatzean funtsezko eragina duten faktore mordoa kontuan hartu behar da.

- Errepasoa egiteko ordutegia eta gaien zerrenda zehaztu beharko dituzu, bakoitzak duen zailtasuna eta behar duen denbora zehaztuz.
- Azterketaren prestaketan sortzen diren zalantzak apuntatzea eta argitu ahal dituenari galdetzea komenigarria da. Askotan ikaskideak izaten dira hobekien argitu ahal dizkigutenak.
- Gai bakoitzerako duzun material guztia birpasatu: liburua eta aldeko oharra, apunteak, fitxak, eskemak, bere momentuan argitu ziren zalantzak, klasean egindako ariketak, etab. Material horrekin gaiaren zure eskema propioa eta sintesia egin beharko dituzu.
- Ohiko ordutegia jarraitzea eta beste irakasgaiak bazter ez uztea komenigarria da. Edozein modutan, azterketako materia egunero birpasatzeko denbora finkatu beharko duzu.
- Birpasatzeko denbora aldi laburrak hobeak izaten dira. Askotan eraginkorragoak izaten dira ikas saio luzeak baino, azken hauetan errazago agertzen baitira nekea eta errekuaratzeko zailtasuna.
- Azterketaren prestaketan zehar gaiari buruzko galderak zeure buruari egitea edo jarriko dituzten ariketa edo jarduera antzekoak burutzea komeni da. Azterketa mota ere, idatzizkoa edo ahozkoa den, aintzakotzat hartuko dugu.
- Irakasleak jarraitu behar dituen irizpideak, azterketa mota, edukin nagusiak eta bestelako xehetasunen inguruko informazioa ere eduki beharko duzu.

### 2. AZTERKETA AURRETIK

Azterketa burutu baino lehen egiten den azken errepasoa garrantzitsua da, baina ez galdu denbora jadanik dakizuna birpasatzen, kontzentratu zaitez soilik ongi ulertzen ez dituzun kontuetan, eta, ahal izanez gero, kontsulta egin ikaskideei edo irakasleari.

Orokorrean:

- Azterketa aurreko egunean, ikasi duzun guztiari gainbegiratu azkarra egin eta oraindik ongi barneratu ez dituzun ideiak edo kontzeptuak apuntatu.
- Nahikoa lo egin behar duzu, normalean baldintza arruntetan egiten dituzun orduak, bestela nekaturik iritsiko zara azterketara eta zure errendimendua ohikoa baino baxuagoa izanen da.
- Azterketa hasi baino lehenxeago, aurreko egunean argitzeko apuntatu zenituen puntu horiek berrikusi ditzakezu, baino agobiorik gabe, lasai, azterketaren zain egonik. Ez galdu denbora jadanik dakizuna birpasatzen.

### 3. AZTERKETA BITARTEAN

- Egin behar duzun azterketa zertan datzan ongi ulertzen duzula ziurtatu behar duzu. Horretarako erantzuten hasi baino lehen galdera guztiak ongi irakurri.
- Ez ahaztu irakasleak emaniko arauak edo paperan idatzita egon daitezkeenak.
- Galdetzen zaizunari erantzuten ari zarela ziurtatu behar duzu, batez ere gairen bat garatzeko eskatzen bazaizu.
- Azterketa bat ongi egitea ez da asko idaztea, galdetzen denari ongi erantzutea baizik.
- Teknika posible bat zuzenean garrantzizkoa adieraztea izan daiteke, modu argian eta motzean, kontrako agindua jaso ez baduzu behintzat.

### 4. AZTERKETA ONDOREN

- Ez aritu urduri ikaskideei erantzun zuzenak zeintzuk ziren galdezka. Batzutan jarrera horrek tentsio eta urduritasun handiagoa ekartzen baititu, eta eskola lanekin era normalean jarraitzea eragozten baitu.
- Irakasleak azterketa zuzendua itzultzen dizunean, lortu duzun nota begiratu eta gorde baino lehen, berrikusi eta poliki aztertu.
- Irakasleak egin dizkizun zuzenketak aztertu, okerrak birpasatu eta erantzun zuzenak nolakoak izan behar ziren ohartu.
- Azterketa guztietatik, hurrengoan hobeki prestatzeko eta egiteko lagungarri izan daitezkeen ondorioak atera behar dituzu. Honela, ikas metodoak edo teknikak huts egin ote dizun edo gauzak ulertu gabe buruz ikasten ote dituzun aztertuko duzu. Agian azterketa urduriegi edo ezin kontzentraturik egin duzula izan daiteke, edo zeure buruarengan duzun konfiantza faltak nerbioen kontrola galarazi egiten dizula.
- Azken finean, zure errendimendu baxuan eragina eduki dezaketen faktore guztiak ongi aztertu beharko dituzu.

### 5. AZKEN GOMENDIOAK

Gainera, laguntzen ahal dizuten beste kontu batzuk ere aintzakotzat hartzea komeniko zaizu:

- Idatzi idazkera garbi eta irakurgarriaz, alboetan margen nahiko utziz, galderen arteko toki nahikoa utziz, garrantzitsuena azpimarratuz, etab.
- Marrazkiak, diagramak, eskemak, laburpenak, ... egin ditzakezu. Batez ere, kontzeptuak argitzen edo aurkezpena hobetzen laguntzen badute.
- Azkenik, azterketa eman baino lehen, berrikusi egin beharko duzu, zerbait faltan edo soberan ote dagoen egiaztatzeko: azentuak, gaizki idatzitako hitzak, erredakzio nahasia, etab.

Eta ez ahaztu izena, ikasmaila, data eta beharrezko diren datu guztiak jartzea.

- Egiten dituzun azterketa gehienak idatzizkoak izaten dira, baina bestelakoak ere izaten dira: ahozkoak, praktikak, proba objektiboak, etab. Zer azterketa mota den kontuan hartu beharra duzu, zure ikasteko eta birpasatzeko modua horren arabera izan behar baita.

## *“HONELA PRESTATZEN DITUT NIRE AZTERKETAK” GALDETEGIA*

Zintzotasunez erantzun ondoko galdetegi honetako galderetako bakoitzari:

1. Normalean, nire errendimendua azterketetan honelakoa izaten da:  
Oso txarra  
Txarra  
Erdi ipurdikoa  
Ona  
Oso ona
2. Nire ikasteko ahalmenak edo trebetasunak honelakoak dira:  
Oso txarrak  
Txarrak  
Erdi ipurdikoak
  - Onak
  - Oso onak
3. Normalean, nire errendimendua azterketetan honelakoa izaten da:  
Oso txarra  
Txarra  
Erdi ipurdikoa  
Ona  
Oso ona
4. Nire ustez, ikasteko ditudan ahalmenak edo trebetasunak honelakoak dira:  
Oso txarrak  
Txarrak  
Erdi ipurdikoak  
Onak  
Oso onak
5. Nire ustez, gainditzea honako faktoreen arabera izaten da:  
Zortea  
Lana eta ahalegina  
Erabilitako ikas teknikak  
Ikasteko ohitura  
Irakaslea
6. Normalean, nire porrotak honakoei leporatzen dizkiet:  
Zirkunstantziei  
Irakasleei  
Ikaskideei  
Gurasoei  
Soilik neure buruari
7. Plangintza eta metodo onak ikasketetan arrakasta errazten dute  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez beti

8. Ongi buruturiko ordutegiak emaitza onak errazten ditu  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez beti
9. Emaitza txarrek beti esan nahi dute ikastea ez dudala gustuko  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez beti
10. Ikasten dudan irakasgaia ez dut gustuko eta horregatik nota txarrak ateratzen ditut  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez da beti arrazoi hori
11. Aurrerapen nahikoaz prestatzen ditut azterketak  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez da beti arrazoi hori
12. Errepasoak egiteko ongi zehaztutako plangintza daukat  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez beti
13. Normalean, azterketa aurretik urduri jartzen naiz  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez beti
14. Azterketak egiteko eta birpasatzeko teknikak ezagutu eta ezartzeko arduratzen naiz  
Ados nago  
Ez nago ados  
Ez beti

## AZKEN GOGOETA

Komentatu ikaskideekin haiei maiz gertatzen zaizkien egoerak eta egiaztatu zuri ere gertatzen ote zaizkizun.

- Zein neurritan eragiten dute ikasteko ohiturek azterketen emaitzetan?
- Ikas teknikak eta, zehazki, azterketarako teknika ezagutzeak arrakasta bermatzen al dute?

## 5 MINUTUKO TESTA

Hemen agertzen den guztia egiteko 5 minutu dituzue. Agertzen den guzti guztia egin behar duzue.

1. Irakurri dena hasi baino lehen
2. Jarri zure izena paperaren eskuineko bazterrean
3. Azpimarratu "izena" hitza
4. Marraztu lauki txikiak goiko ezkerreko izkinean
5. Jarri X bana 4. galderan egindako laukietan
6. Marraztu borobil bat lauki bakoitzaren inguruan
7. Sinatu izenburuaren azpian
8. Izenburuaren ondoan idatzi: "bai, bai, bai"
9. Jarri X bat beheko ezkerreko izkinean
10. Marraztu hiruki bat X horren inguruan
11. Orrialde honen atzeko aldean bidertu 70 x 30
12. 2. esaldiko "papera" hitzaren inguruan borobil bat marraztu
13. Esan ozenki zure izena
14. Orrialde honen atzeko aldean egin batuketa hau:  $107 + 278$
15. Marraztu borobil bat aurreko ariketaren inguruan
16. Zenbatu ozenki 1etik 10era atzeraka
17. Egin hiru zulo paper honetan arkatzaren punta hemen jarrita
18. Puntu honetara ailegatu den lehena bazara, oihukatu: "Azkarrena naiz".
19. Azpimarratu ezkerreko zutabeko zenbaki bakoitiak
20. Ohar guztiak arreta haundiz irakurri ondoren lehenengo eta bigarrena soilik erantzun.